

eman ta zabal zazu




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

OpenCourseWare



# Kazetaritzaren Deontologia

(Ariketen erantzunak)



Ainara Larrondo Ureta  
Irudia: autoreak adaptatua (Iturria: Pixabay).

## 1. Ariketa

Kazetaritza lanbidearen deontologia eta oinarriak

[\* 1. Gaia]

---

Ryszard Kapuscinskiren liburuaren irakurketa (*Los cínicos no sirven para este oficio. Sobre el buen periodismo*).

**Erantzun galdera hauei. Arrazoitu eta argudiatu. Gehitu kazetaritza etikaren osagarria. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan.** Osatu kode deontologikoekin (Dosierra\_Kode Deontologikoak).

### 1. Kazetari on bat izateko... ezinbestekoa da bokazioa izatea? Zergatik?

*Kapuscinski kazetari poloniarra famatuak dioenez, “bokazioa” funtsezkoa da kazetaritzan. Are gehiago, autore honen aburuz kazetaritza ez da “profesio” edo “lanbide” bat, bokazio bat baizik. Argi dago kazetaritza ez dela lanbide erraza. Kapuscinskik dioenez, kazetariak enpatia berezi bat izan behar du gizartearen eta gizabanakoen beharrak hautemateko, baita iturriekin erlazionatzeko ere, hitz batean, kazetaritza pertsonekin lan egiten duelako. Gainera, kazetaritzako lan-baldintzak askotan ez dira onenak eta presio asko daude kazetari lana gauzatzeko. Egia da lanbide gehienetan presioak daudela, baina kazetaritzan ematen diren presioek garrantzia berezia omen dute. Izan ere, batetik kazetaritza lanbideak egin behar soziala du eta bestetik, presio horiek boteretsuak dira, politikoak edota ekonomikoak, hain zuzen. Honi lotuta, ezin dugu ahaztu lehen aipatutako kazetaritzaren funtzio sozial hori “laugarren boterea” izateari lotuta dagoela. “Laugarren boterea” den heinean, kazetaritzak ‘watchdog’ papera edo txakur zaindariaren papera betetzea du helburu, hau da, beste botereak gehiegikeriak egiten ez ditzaten behatzea. Errealitateak erakusten digu, ordea, arazo eta presio asko egoten direla paper hori behar den bezala betetzeko. Dena den, kazetariak eta komunikabideak “txakur zaindariak” badira, nor da txakur zaindarien txakur zaindaria? Erantzuna eta erantzukizuna gizarteak berak du. “Herritarren kazetaritza” fenomeno lagungarria izan da beste eremu publiko bat garatzeko eta txakur zaindariaren papera berritzeko. Dena den, ez dugu ahaztu behar kazetaritza ez dela herritarrena, profesionalena baino; profesionalak erantzukizun hori barneratzeko eta kazetaritzaren papera betetzeko lan egin behar dute, bere lanbidea eragiten duten presioak (enpresarenak, botere ekonomikoen zein politikoenak...) ahal diren neurrian saihestuz (esaterako, sareko plataformak ematen duten askatasunaren medio).*

### 2. Kazetaritza lanbideak ospe txarra omen du. Ados zaude? Izatekotan, merezi al du?

*Beharrian soziala izan arren, ukaezina da kazetaritza lanbideak ospe txarra duela kazetari batzuen jardunengatik eta komunikazio talde handien jokabideengatik. Edonola ere, gizarteak kazetariak behar ditu eta gaur egun are gehiago. Sareko plataformei esker (webguneak, blogak, sare sozialak, etab.) “herritarren kazetaritza” gero eta zabalduagoa dago eta informazio gehiago dagoenaren pertzepzioa nagusitzen ari bada ere, kazetaritzan adituak eta profesionalak behar dira informazioa behar den bezala tratatzeko. Profesional hauek prestatuta daude eta gizarteari helduko zaion informazioa kalitatezkoa dela ziurtatzeko erremintak dituzte. Esaterako, badakite informazioa nola egiaztatu eta mezua nola egituratu modu argi eta koherente batean transmititzeko, testuen, audioen edota irudien bidez.*

*Iturri ezberdinekin erlazionatzeko moduak ere ezagutzen dituzte eta oso garrantzitsua dena, badakite nola bereizi informazioa eta iritzia. Kontua da, hasieran esan bezala, kazetari batzuen jokabideek modu hauek errespetatzen ez dituztela. Hori dela eta, kazetaritzaren deontologiaren garrantziaz ohartzea funtsezkoa izaten jarraituko da.*

### **3. Zein kasutan egiten du porrot kazetari batek?**

*Autorearen aburuz, kazetaritzak gizarteari zerbitzu bat eskaintzen dio eta, ondorioz, kazetari baten lanaren funtsak gizabanakoaren bizipen, beharrak, sentimenduak eta ikuspuntuak kontuan hartu behar izaten ditu. Beraz, kazetariak interes politikoak eta ekonomikoak mesedea egiteagatik herritarren interesak baztertzen baditu, orduan porrot egiten du. Egia da kazetariak bere enpresaren jarraibideak eta ildo editoriala errespetatu behar dituela, baina horrek ez du esan nahi informazioa biltzean eta tratatzean bere asmo onena eta deontologia aplikatzearen erantzukizunetatik salbuestetsua dagoela.*

### **4. Autorea (Kapuscinski) komunikabideen jabetzarekin kritikoa da. Bere ustez, informazioa negozio hutsa bihurtu da.**

- Arrazoia du?
- Zertan sumatzen da?
- Informazio-enpresak beste enpresa bezalakoak dira edo enpresa bereziak dira?
- Autoreak gaurko kazetaritza mundua nola den azaldutakoaren arabera, esan genezake “benetako kazetaritza” hil egin dela? Baina, zer da “benetako kazetaritza”?

*Autoreak arrazoia du. Informazioa produktu edo negozioa bihurtu da eta gizarteak produktu hori behar du “galduta” ez ibiltzeko. Kontua da batzuetan produktu berak herritarrak galduta egotera eramaten dituela, produktua kalitatezkoa ez denean edo kazetaritzaren printzipio nagusiak kontuan hartu barik ekoizten eta hedatzen denean. Informazioa boterea ere bada, eta horren jabe den hedabideak besteenganako abantaila izango du. Helburua aleak saltzea da, horrekin batera, publizitatea eta etekin ekonomikoak datozelako. Ikuskizunak ere garrantzi handiagoa lortu du. ‘Telezaborra’ deritzon fenomenoan dugu eredu argienetariko bat. Ikuskizunean oinarritutako informazioek eta programek etekin handiagoak lortzera daramatzate eta informazioa edo produktua errentagarriagoa egiten dute. Zentzu horretan, komunikabideek edozein enpresa bezala jokatzeko dute, helburua zenbat eta mozkin gehiago lortzea delarik. Hala ere, enpresa-helburuak lortzeko ez du esan nahi kazetaritzaren funtzioak eta eginkizunak behar diren bezala betetzen ari direnik. Horrekin lotuta, esan behar da informazio-enpresak ez direla besteak bezalakoak. Izan ere, informazio-enpresek funtzio sozial bat betetzen dute. Besteak beste, jendarteak informazioa jasotzeko eskubidea bermatzen dute. Kontuan hartuta bermatze hori ez dela kasu guztietan ematen, orduan Kapuscinskiarekin batera pentsa genezake “benetako kazetaritza” -edo laugarren boterearekin identifikatzen den kazetaritza- praktikara eramatea zail xamarra dela.*

*Kapuscinskiaren hausnarketa jarraituz, “benetako kazetaritza” horrek pertsonekin lan egiteari ere erreferentzia egiten dio. Izan ere, gizabanakoak iturriak izan daitezke eta kazetariak pertsonen istorioak kontatzen ditu. “Benetakoa” izateko kazetaritzak “nahitakoa” izan behar du ere bai. Hainbat eredu aipatuz, autoreak zerbaitengatik borrokatu behar dela, helburu batekin lan egin behar dela eta helburuak egiazkotasuna lortzea izan behar duela azaltzen du. Egia aurpegi askoko txanpona da eta egi absoluturik ez dago. Komunikabideek horrekin jokatzeko dute iritzia publikoa kontuan hartuta. Egiaren printzipio oinarria ez da galdu, eraldatu baizik, eta oraindik ere printzipio horrek kazetaritza mugitzen du. Autore poloniarrek esaten duenez, egiari zor zaion errespetuarekin lan egin behar da. Iturri ezberdinen informazio jarioak osatzen dute egia eta autoreak esaten duenez, “kazetari onak” osatu behar izango du jario ezberdin horiek, gizarteak bere iritzia sortzeko aukera izateko.*

**5. Autorearen iritziz, komunikabideen enpresa mundua ohartu da egia dagoeneko ez dela garrantzitsua. Eta kazetariak zer egiten dute? Agindu nagusiari jarraitu baino ez?**

*Kazetariak informazio-enpresa baten langileak dira eta langileak diren heinean, nagusiari jarraitzen diote. Edonola ere, langile hauek bere mundu-ikuskerara lanera eramaten dute eta bokazioa izatekotan nagusiaren edo hedabidearen aginduak ikuspuntu kritiko batetik epaitzeko gaitasuna izango dute. Beste erantzun batean esaten denez, gaur egun baliabide ezberdinak daude informazio askatasuna bultzatzeko eta errealitatea bihurtzeko (esaterako, sareko plataformak, etab.).*

**6. Interpretatu autoreak esan nahi duena hurrengo esaldiekin (38. orr.): “No hay periodismo posible al margen de la relación con otros seres humanos”; “para ejercer el periodismo (...) hay que ser un buen hombre o una buena mujer”.**

*Kazetaritza egunero munduan gertatzen dena eta gertaera horien inguruan sortzen diren iritziak eta ikuspuntuak zabaltzeaz arduratzen da. Mundua pertsonak egiten dute eta, hortaz, ezin da kazetaritza pertsonarik gabe edo pertsonen arteko harremanik gabe ulertu. Gauzak horrela, kazetariak bere lana egiteko enpatiaz baliatu behar dira. Horrek bidegabekeriak salatzea (sexismoa, emakumeenganako eta umeenganako bortitza, politikaren arloko ustelkeria, zapalkuntza ekonomikoa, etab.) inplizituki darama. Sentikorra izatea beharrezkoa omen da, beraz, mundua aztertzean eta bitartekaria izatean. Gizon edo emakume ona izateak, kasu honetan, moralak edo etikoki jarduteko gaitasuna duela ere esan nahi luke.*

**7. Autoreak esaten du kazetariak presiopean lan egiten dutela.**

- Arrazoiak du? Ados zaude?
- Presiopean lan egiten dute kasu guztietan? Bai, ez... eman ereduak
- Kazetariak bere komunikabidearen irizpide editorialei kasurik egin gabe lan egin dezake?

*Kazetariak presiopean lan egiten dute, denboraren edo erlojuaren presioa lehena izanda. Presio hori sareko hedabideengatik areagotu da (sare sozialak, ziber-hedabidea etengabeko eguneraketa, etab.). Denborari dagokion presioa arriskutsua izan daiteke. Izan ere, denbora tarte laburrean mezu edo komunikazio ezberdinak gauzatzeak informazioaren kalitatea kalte dezake. Beste motatako presioak ere badaude eta hauek lehen aipatutako “benetako kazetaritza”ren helburuak baldintzatzen dute. Presio ekonomikoak edota ideologikoak askotan agerian geratzen dira. Esaterako, publizitateak presio ekonomiko handia ezartzen du. Bestalde, kazetarien soldaten murrizketak ere kontuan hartzekoak dira, lan-prekaritateak ere presio funtzioa betetzen duelako. Komunikabidearen ildo ideologikoa jarraitzearen beharrak ere kazetarien lana presiopean jartzen du. Hala ere, komunikabidearen irizpide editorialei kasurik egitea eskakizun etikoa da eta kode deontologikoetan batera edo bestera azaltzen da. Kazetaria leiala izatea komeni da edo, hobe esanda, logikoa, hedabideek ez baitute bere langileen artean bere irizpide editorialei kasurik egiten ez dien kazetaririk. Gubernuek edo politikari boteretsuek kazetariak eta hedabideak presionatzen dituzte, informazioa kontrolatzeko asmoz edo bere helburuentzat kaltegarriak izan daitezkeen informazioak ekiditeko edo eragozteko. Kanpoko eta barruko faktore horiek guztiek kazetaritza lanbidea guztiz mugatzen dute eta askatasun falta argia eragiten dute, aurretik aipatutako “benetako kazetaritza”ren heriotzara nolabait bultzatuz.*

**8. 59.-61. orrialdeetan manipulazioaz hitz egiten du autoreak**

- Komentatu bere hitzak prentsan eta ikus-entzunezko komunikabideetan ematen den manipulazioaz.
- Horrela da?
- Ezagutzen duzu ereduaren bat?

*Kapuscinski autoreak azaltzen duenez, nahitako manipulazioaren atzean arrazoi ideologikoak daude gehienetan. Manipulazio hori gauzatzeko hainbat modu daude: albisteen hautaketa, albisteen trataera edo idazkera, etab. Hainbatetan egia ezkutatzearekin nahikoa izaten da. Hori izan zen, esaterako, Madrilen 2004. martxoaren 11n izandako atentatuekin gertatu zena. Faltsua zen arren, hasiera batean Gobernuak ETAk egin zuela esan zuen:*

[http://politica.elpais.com/politica/2014/03/07/actualidad/1394192842\\_322902.html](http://politica.elpais.com/politica/2014/03/07/actualidad/1394192842_322902.html) [Kontsulta: 2017/04/25]

[http://elpais.com/diario/2004/03/27/espana/1080342028\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2004/03/27/espana/1080342028_850215.html) [Kontsulta: 2017/04/25].

*Era beran, nahiz eta inkontzientea edo nahi gabe izatea, denborari lotutako presioengatik ere manipulazioak gerta daitezke. Izan ere, kazetariak informazioa lortzeko, zehazteko edota egiaztatzeko denbora eskasa izan ohi dute.*

## 2. Ariketa

Etika profesionala eta profesionaltasuna: informazio-antolaketa

[\* 2. Gaia]

---

**Erantzun galdera hauei. Arrazoitu eta argudiatu. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan.**

### 1. Esaldi batean testuaren zentzua eta autorearen iritzia laburbildu.

*Bere eguneroko jardueran kazetariak etika erabili eta eskatu behar izango lukete, edozein presioaren gainetik, kalitatezko informazioak eta iritziak (egiaztatuak, zehatzak, objektiboak, gizartearen ongizaterako baliodunak, etab.) betiere helburu garrantzitsutzat harturik. Autoreak azaltzen duenez, kazetaritza profesioa existitzen da eta oso bizirik dago: "Gizarte aurreratuetan kazetaritzazko informazioa funtsezko elementua dela indarrean dagoen sistema ekonomiko eta politikoari legitimitate soziala emateko". Autoreak azaltzen duenez, kontua da "egitura sozial antolatua eta hierarkizatua" bezala, kazetaritzak "gizartearen leku batean modu estrategikoz kokatuta arau menderatzaileen sendotze-funtzioa" betetzen duela.*

### 2. "Informazioa albiste-produkzio antolatua da". Zer esan nahi du esaldi honek? Zein dira honen ondorioak?

*Kazetaritza-mezuak ekoizpen- edo produkzio-kate baten barruan sortzen dira. Produkzio-fase guztiak ondo antolatuta daude: informazioa jasotzea (batez ere, iturri ofizialetatik) eta zer izango den albistea erabakitzea (agenda-setting), informazioa lantzea mezua sortzeko eta mezua bera zabaltzea. Fase bakoitzean hedabide motaren arabera diren errotutako errutinak eta estiloak daude. Hauek azken produktuaren ezaugarriak eta balioa baldintzatzen dituzte. Beraz, informazioa "sormen profesional indibidualizatuaren menpe" ez ezik, "erredakzio-talde edo langileagoaren antolaketa enpresarial-profesionalaren menpe" ere dago. Hori dela eta, deontologiak hitz egiteko, autokritikaz gain, praktika informatiboen antolaketaren funtzioak eta ereduak hausnartzea beharrezkoa litzateke. Kazetaritza ezin da ulertu kazetariari indibidualki begiratuta. Kazetaritza erakunde antolatu baten emaitza da eta interesak ez dira banan-banakako kazetarienak, baizik eta gainetik eraiki den antolaketa profesionalarena eta lan-sistemarena.*

### 2. Etikaren ikuspegitik, autokritika eza sumatzen da kazetarien artean? Honi buruz zein da autoreak duen iritzia? Non agertzen da? (Aukeratu esaldiak).

*Batzuetan kazetarien lana ezin dela kontrolatu edo behatu iruditu arren, autoreak dioenez, "adierazpen askatasunarekiko errespetuak ez du inongo zerikusirik kazetarien lana epaitu eta kritikatzeko ezintasunarekin". Kazetaritzako lan-errutinak eta ohiturak ez dira beti onenak. Hala ere, errotuta daude eta konplexua da hauek aldatzea. Agian horrexegatik, kazetariak barneratuta omen dituzte oso etikoak ez diren jarduerak (informazioa egiaztatzea, zurrumurruak kontuan hartzea, iturri ofizialeekiko mendetasuna, katastrofismo-erakarpina, filtrazio interesatuak, etab.). Autoreak dioenez, "tamalez, badirudi hausnarketa (kezka) hori ia-ia ez dela gertatzen kazetarien bere artean".*

*Autoreak ez du justifikatzen “kritika eza” hori, baina ulertzen du “zeregin informatiboetan balio etikoak defendatzea egiteko erraza” ez dela, batez ere “kazetarietzat berentzat”. Autoreak azaltzen duenez, kazetaritzaren jarduerari dagokionez sentsibilitatea gero eta handiagoa da. Elkargoak, sindikatuak, elkarteak... denak oso kezkatuta daude kazetariak bere lan errutinetan egin ditzakeen hutsegite etikoekin. Hori dela eta, kodeak eta kazetaritzaren deontologia laguntzen duten antzeko erremintei zabalkunde gero eta handiagoa emateko gogor lan egiten da. Hala ere, kontuan hartu behar da kodeak baliagarriak direla baldin eta kazetariak bere egunero errutinetan aplikatzeko bereganatzen badituzte. Kontua da hainbat kazetarik hutsegite etiko ez ohartzen ez dituztela, hauek ohizko praktika informatiboen ondorioak direlako edo, autorearen hitzetan, antolaketa-profesionalaren eta produkzio-sistemaren ondorioak direlako. Laburbilduz, autoreak iturrien gaineko eta baita iturri horiek emandako informazioaren gaineko autokritika egin behar dela uste du. Bere esanetan, hausnarketa hori kazetari-lana antolaketa profesionala eta lan-sistema jakin baten barruan egiten dela kontuan hartuta egin behar da.*

### **3. Zure ustez, zeintzuk izan liteke autokritika horren faltaren arrazoiak? Produkzio antolaketa, manipulazioa inkontzientea...**

*Aurreko erantzunean deontologia aldetik inperfektu izan daitezkeen jarduerak barneratuta izateak eta normaltzat hartzeak autoreak aipatzen duen kritika eza bultzatzen dezaketela pentsa liteke. Lana ondo egiten ari dela pentsatzea izan daiteke autokritika faltaren arrazoi nagusia eta ez, kontraz, lan hori botereen transmisio-tresna dela pentsatzea, hori konplexuagoa edo deserosoagoa izango litzatekeelako. Era berean, lan-erritmo frenetikoak eta lan giroan bertan hausnarketarako denbora falta kontuan hartzekoak dira. Gehienetan kazetariak sinplifikatu egiten dute eta antolaketa sistemak aldaezinak direla pentsatzeko ohitura izaten dute. Ez dagoela zer eginik pentsatzea errazena izan arren, pentsamolde horrek kazetaritzaren estiloarekin ez du zerikusirik, kazetaritza lanbidea munduko errazena ez baita.*

### **4. Testuaren arabera, albiste-produkzioaren errutinek kazetaritzaren etikari kalte egiten diote. Zeintzuk dira errutina horiek?**

*Autoreak dioenez, albiste-produkzioan hainbat errutina daude. Albisteak gero eta azkarregi ematera joera dagoenez, kazetariak iturri finkoekin eta ofizialekin lantzea gustatzen zaie, nahiz eta iturri horiek botere-zentroak izan eta informazioa neurri handi bateraino kontrolatzen duten. Erredakziora heldu aurretik, albisteak erdi eginda daude. Zein da orduan kazetarien bitartekotza? Bestalde, hedabide bakoitzean atalak aurrez aurretik pentsatuta edo erabakita egoteak informazioa baldintzatzen du, gaiak aukeratzean malguagoak izatearen aukerak murrizten baitu. Sareko komunikabideetan, eta orokorrean euskarri digital guztietan (telefono mugikorretan, tabletetan, etab.), formatuak hain hesituta ez badaude ere, hedabide tradizionaletan produkzio antolaketa monolitiko xamarra da oraindik ere, bereziki telebistan.*

### **5. Aginteek produkzio informatiboa kontrolatzen dute iritzi-publikoan boterea izateko. Komunikabideek boterearen tresna baino ez dira?**

*Eguneroko jardueran, iturri ofizialak begiramenez tratatzeak iturri hauek hedabidea zentzu batean kontrolatzen laguntzen du. Izan ere, albisteak haiek inposatuko dituzte eta hauen trataera ere orientatuko dute. Hala ere, kontuan hartu behar da hedabideek bere iritzi ataletan askatasun gehiago dutela edo askeago sentitu daitezkeela, eta euskarri digitaalari esker iturri ofizialak ez ezik, beste motatako*

*iturriak eta ahotsak ere gero eta pisu handiagoa hartzen ari direla (esaterako, herritarren mugimenduak).*

*Goi-maila batean, aginteen presio zuzena eragin dezakete komunikabideengan edota komunikazio taldeengan. Eredu moduan, alderdi politiko batean hautagai bi edo gehiago egotekotan, ildo ideologiko berekoa den hedabideak baten edo bestearen alde egin dezake, alderdiaren barruan pisu gehiago duen atalari kasu gehiago eginez, esaterako.*

*Boterearen tresna izatea kazetaritzak izan behar duen "watchdog" edo "txakur zaindaria"ren paperarekin (laugarren boterearen rolaekin, hain zuzen) bateraezina dela ondo balioztatu behar da. Printzipioz, kode deontologikoak errespetatzeak bi eginkizunak bateragarriak egiten lagun dezake.*

*Kontu honen haritik, autoreak esaten du informazioa, eskuarki, sistemaren aldeko propaganda-hedatzaile bihurtu dela eta, hortaz, inguratzen gaituen munduaz kazetaritzak ematen dizkigun datu eta analisiak mundua ulertzeko egokiak ez direla, baizik eta hutsune eta deformazio interesatuak. Hala ere, komunikabideei esker ingurunean gertatzen denari buruz ezagutza-gaitasuna eta kontzientzia handiagoa izaten dugu. Azken hau laguntzeko hedabide tradizionalak baino baliagarriagoak dira, antza, hedabide digitalak (sare soziala, etab.).*

## **6. Bizpahiru esalditan testuaren gaiari buruzkoa duzun iritzia azaldu.**

*Ezin dira kazetaritza kode deontologikoak aplikatu lanbidea ulertzen ez bada. Lanbidea ulertzeak honen helburuak edo zereginak zeintzuk diren jakitea ez ezik, hauek praktikara nola eramaten diren ezagutzea ere esan nahi du. Azken honi buruz hitz egiten du autoreak. Testuaren edukia oso baliagarria da kazetaritzaren deontologia orientatzeko, kazetarien hutsegite etikoen arrazoiak non dauden ulertuz. Horrela, pentsa dezakegu soluzio etikoak hobeto enfokatuta egongo direla eta ardura kazetarien eskuetan soilik ez dela utziko -nahiz eta argi egon beharrezko gogoeta norberarengandik hasita dela-. Izan ere, testuak dionez, ardura handiena aginteen eta hedabideen buruena da, informazio-antolaketa eta sistema profesionala horrela izatearen ardura berarena baita. Autoreari jarraituz, ez dugu ahaztu behar ekoizpen-antolaketa hori eguneroko jardueran deontologia apurtzeko muineko arrazoia dela. Amaitzeko, informazio-produktuak ekoizteko lehengaia zein den ezagutzea funtsezkoa da, baita informazio-produktuen erabilera aurreikustea ere edo, are gehiago, erabilera horien ondorioak neurtzea.*



### 3. Ariketa

Kazetaritzaren irudi soziala: jarrera sexistak ekiditen

[\* 2. Gaia]

---

**Erantzun galdera hauei. Eman zure iritzia, arrazoitu eta argudiatu. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan.**

#### 1. Testuak hainbat gomendio aipatzen ditu. Horien artean, zein iruditzen zaizu beharrezkoena?

*Testuak dioenez, “egungo hedabideetan emakumei eta gizoni ematen zaien tratu informatiboa aztertuz gero, joan den mendeko 70. hamarkadaren amaieran egindako lehen azterketen antzekoak direla ikusiko dugu”. Adierazpen beldurgarri eta erreala aldi berean. Oinarritzko hainbat eskubide marko juridikoan aitortu izanarekin “dena lortu dela” uste dutenen aurrean, errealitatea genero bereizkerian eta matxismoan oinarrituz eraikitzen dute komunikabideek.*

*Hedabideak jendarteratze eragile garrantzitsuenetariko bat dira, jende artean baloreetan, heziketan eta beraz pentsamenduaren eraikuntzan berebiziko eragina dutelako. Gauzak horrela, komunikabideek ordena soziala birproduzitzen dute arlo guztietan. Ideia honetatik abiatuta, testuan aipatzen diren gomendio guztiak jarraitu beharrekoak izango lirateke. Dena den, zenbait azpimarratzeagatik, testuaren hasieran esaten dena bereziki esanguratsua dela esan genezake: eremu publikoko protagonistak diren emakumei buruzko albisteak eta irudiak hedabide guztietan gehitzeko beharra eta, zentzu berean, eremu pribatuko protagonistak diren gizoni buruzko informazioak gehitu. 4. gomendioa ere nabarmentzekoa da, laburra, zuzena eta oso esanguratsua izateagatik: “Emakumeen duintasunaren kontrako informazio tratamendu oro saihestu”.*

*Emakumeen duintasunaren kontrako tratamenduak itxura fisikoarekin erlazioa izaten dute, baita emakumeenganako bortitzarekin ere. Oraindik ere, XXI. mendean, hedabideek emakumei buruzko bultzatutako hainbat irudi publiko estereotipuek, diskriminatzaileek eta sexistek diraute. Esaterako, duela ia hamar urte Estatu Batuetako lehendakari Obama bere familiarekin Madrilera etorri zen bisitan eta orduan Espainiako lehendakaria zen Zapateroarekin bildu ziren. Hainbat hedabidek izugarritzko garrantzia eman zioten Zapateroren alaben janzkerari. Inork gutxi gogoratuko ditu biltzar horren arrazoiak eta ondorioak.*

#### 2. Genero indarkeriaren berrietan komunikabideek hurrengo azalpenak eman ohi dituzte: jelos, maitasun erokeria, buruko desorekak, droga-mendekotasunak, bikotearen arteko liskarrak, etab. Zer iruditzen zaizu tratamendu hori?

*Hedabideei esker genero indarkeria eremu pribatutik eremu publikora pasatu da, isiltasunetik kalera, eta hori lagungarri izan da arazoa aditzera emateko eta konpontzen saiatzeko. Hedabideak funtsezkoak izan dira gizartearen sentsibilizazioa bultzatzeko. Aurreiritziak baztertzea eta neutraltasuna bermatze aldera adjektibazioa ekidin beharko da, “krimen pasionala” bezalakoak saihestuz. Esaterako, “indarkeria domestikoa”, “krimen pasionala” eta antzeko espresioak erabiltzearen ordez, zehatzagoak diren beste batzuk erabiltzea komenigarriago izango litzateke, esaterako, “feminizidioa” edo “indarkeria matxista”.*

*Izan ere, genero indarkeriaren arazoaren informazio-trataera nahiko mekanizatuta dago eta hedabide gehienek oso antzekoa den trataera eskaintzen dute (nola, non, heriotza kopurua, estatistikak, etab.). Baina zifretatik harantz errealitate oso konplexua ezkututzen da. Kode deontologikoek esaten dutenez, hedabideek errealitate konplexuetan arreta berezia jarri behar dute, hauek behar diren bezala azaltzeko eta helarazteko. Genero indarkeriaren kasuan, fenomenoaren arazoak edo arazoaren muinak (prestakuntza, sistema patriarkala, etab.) oso gutxitan jorratzen dira. Are gehiago, hedabideek indarkeria egotearen arazoak gehienetan egoerari leporatzen dizkiote (jelosia, erokeria, drogen kontsumoa, liskarrak, etab.). Are gehiago, arazo horiek emakumea biktima aurkezten dute, baina biktimizazioaren gaiak ere emakumeei esleitzen zaien rol gutxietsiarekin zuzeneko lotura du.*

### **3. Kode deontologikoek zerbait aipatzen dute genero indarkeriari buruz?**

*Euskal Autonomia Erkidegoan komunikabideek gaiaren inguruan egin behar duten trataera azaltzen du 4/2005 Legea, 2005eko otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea. 26.3. artikuluan komunikabideek hartu beharreko neurriak azaltzen dira:*

*“Gizarte-komunikabideek, beren programazioak egiteko orduan, ez dute hizkera sexistarik erabili behar, eta emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar dute, edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte, eta bereziki zaindu behar dituzte ume zein gazteentzako edukiak. Bestalde, emakumeek sustatutako edo emakumeek zuzendutako jarduera politiko, sozial eta kulturalen zabalkundea bermatu behar dute, gizonetik berdintasunean, eta orobat emakumeak ahalduntzeko lagungarri diren jarduerak ere bai”.*

*Kazetaritzaren kode guztiek indarkeria trataera nola izan behar den eta berdintasun printzipioa ohartarazten dute. Batzuek ere genero indarkeriaz zehazki hitz egiten dute. Esaterako, Euskal Irrati Telebistak “genero- indarkeria” izeneko etiketa sailkatzen eta gai honen inguruan taldeak sortutako albisteak biltzen ditu: <http://www.eitb.eus/eu/tag/genero-indarkeria/>*

*Berria egunkariak bere estilo liburuan “bereizkeriarik gabeko tratamendua” izeneko atalean (<http://www.berria.eus/estiloliburua/eliburua/deontologia#18>) hurrengo dio:*

*“Berria egunkariak zorrotz eta erantzukizunez jokatzeko du informazioetan bereizkeria eragozteko, eta ez du onartzen diskriminazioa bultzatzen duen jokaerarik, edozein motatakoa dela ere: sexuan oinarritua, etnial, erlijioan, kulturaren, sexu aukeraren edo bestelako gorabeheretan (...) Gizonei eta emakumeei tratatu simetrikoa ematen ahaleginduko da BERRIA. Emakumeek ez dute talde homogeneorik osatzen. Beraz, estereotipoak eta topikoak saihestu beharra dago. Bai elkarrizketatuei eginkizun galderetan, bai albisteari emaniko tratamenduan, kazetariak baztertu egingo ditu hala genero rolei loturiko galdera topikoak nola estereotipoak sendotzen dituzten kliseak”.*

*Konkretuki, genero-indarkeriari buruzko trataeraz Kataluniako Kazetarien Elkarteak honelaxe dio: “Actuar con responsabilidad especial y exactitud en casos donde la noticia o las opiniones pueden causar discriminación con base al sexo, raza, creencias u origen social o cultural, y que pueden incitar al uso de la violencia, y evitar palabras ofensivas referentes a la condición personal de los individuos y de su integridad física y moral”.*

#### **4. Zein da komunikabideen ardura soziala emakumeen kontrako biolentzia gaian? Emakume eta gizonen rol sozialetan zein ardura du telebistak?**

*Komunikabideek jazoeren berri ematearen ardura soziala dute eta, beraz, emakumeei dagozkien jazoerekin ere harrera arduratsua erakutsi behar dute. Emakumeenganako indarkeriaren kasuan, esaterako, eta lehen esan denez, datu hotzetatik harantz indarkeria horren atzean dagoena azaltzea funtsezkoa izango litzateke trataera arduratsua eskaintzeko. Horretaz gainera, hizkuntza normalizatua eta sexista ez dena erabiltzea ezinbestekoa da. Oso garrantzitsuak dira hedabideek bultzatzen dituzten eskemak edota rolak, eta hori zerikusia du lehenengo galderan erantzun dugunarekin (eremu publikoa eta pribatua eta emakumeen itxura fisikoa). Oro har, emakumeak etxearen (etxekoandreaken irudia, familia loturak), itxuraren (edertasun-produktuak, arropa) eta emoziozko kontuekin erlazionatzen dira (sentikortasuna, samurtasuna, etab.). Gizonak, kontraz, eremu publikoaren kontuekin (lan ordaindua, politika eta ekonomia, kirola, etab.) lotzen dira.*

#### **5. Ia komunikabide guztiek erabili zuten Letizia Ortizen eta Bruniren argazkia, Sarkozy Frantziako presidentearen Estatu-bisita irudiztatzeko. Aztertu kasua eta argudiatu kode deontologikoen abiapuntutik.**

*Sexismoak emakumeak objektuak bezala tratatzera eramaten du. Komunikabideek sexismo forma guztiak ekidin behar izango lituzkete. Arazoa da batzuetan morboari eta ikusminari lehentasuna ematen zaiela. Hori ariketak erakusten digun argazkiaren kasuan gertatu zen. Batetik, argazkia ez dator batere albistearen gai zentralarekin eta trataera nahasgarri hori guztiz baztergarria da; bestetik, estatuburuaren emakumeak bere itxura fisikoagatik baino ez gailentzea trataera sexista hutsa da. Ganorazko kazetaritzaren kontrajartzen duen jarrera dela begi-bistan dago.*

## 4. Ariketa

Kazetaritza lanbidearen eskubideak eta mugak: adierazpen askatasuna, informazio askatasuna eta ohore eskubidea

[\* 3. Gaia]

---

### 1. Adierazpen askatasunak genozidioaren defentsa, holokaustoaren ukapena edo larritasun eta izaera bereko jarduerak babesten al ditu?

*Adierazpen askatasunak iritziak plazaratzeko askatasuna bermatzen du. Ikuspuntu hotz edo oso erromantiko batetik definituz gero, adierazpen askatasunak ez luke mugarik izango. Dena den, zentzura existitzen den heinean, adierazpen askatasuna mugatuta dago. Zentzura ez egon arren, adierazpen askatasunak mugak ditu ere bai; ez izatekotan, edozer gauza esateko edo idazteko libre izango ginatekeelako. Genozidioa eta antzeko delituak ukatzea edo justifikatzea zigor kodean zigortuta dago, baina penalki zigortuta ez egon arren, adierazpen askatasunak kontzientzia askatasunarekin topo egiten lezake. Izan ere, oinarrizko eskubide batek ezin du beste bat oztopatu edo zapaldu. Genozidioa ukatzeko adierazpen askatasuna aldarrikatzea baino lehenago genozidioak berak zapal dutako askatasun eta eskubide guztiak daude. EITBko jarraibide editorialek<sup>1</sup> dioten bezala, “gizarte demokratikoa definitzen eta legitimatzen duen elementua giza eskubideen kode unibertsala da, eta kode unibertsal hori da lehen erreferentea demokrazia baten legegintzan”. Era berean, jarraibide hauetan esaten denez, “hedabideek garbi eduki behar dute zein balio defenda daitezkeen euren tribunetatik, eta zein arbuia behar diren”. Are gehiago, jarraibide hauetan irakur dezakegu hurrengo azalpena: “Iritzia funtsezko balio etiko jakin batzuei lotuko zaiela, hala nola, giza eskubideen errespetuari”*

### 2. Informaziorako askatasunak justifikatzen al du gobernuko kide den politikari ezagun baten oporretako argazki batzuen argitaratzea?

*Ez du justifikatzen. Politikariak kontziente izan behar du kargu publikoak eskatzen dizkion beharrak bete behar dituela. Hedabideen jomuga sortzen duen interesa publikoaren arabera izango da. Logikoki, interes publiko hori lanaldia bukatzean eta oporrak hastean gutxiagotuko da eta bizitza pribatuaren esparrua, kontraz, handitu eta bertan murgilduko da. Oporraldian politikariaren ekintzek publiko izateari utziko diote eta, ondorioz, interes publikoa ere desagertu egin behar izango litzateke. Beste era batera esanda, baldin eta politikariak oporretan duen jarduerak interes publikoan eraginik ez badu, orduan ez da zertan argitaratu.*

### 3. Kamera ezkutua erabiliz buruturiko erreportaje batek pertsona baten ohore, intimitate eta irudirako eskubideak urratu al ditzake?

*Kamera ezkutua erabiltzeak ez du kazetari izatearekin lotura handirik, edozeinek erabil dezakeelako baliabide hori. Kazetariak egia eta justizia bilatu behar ditu, baina betiere zilegiak diren erremintekin eta baliabideekin. Hala ere, kazetarien elkarteak den FAPEk kamera ezkutua erabiltzea onartzen du, baldin eta baliabide hori erabiltzea gizarteari ongirako bada eta -interes publikoak ez eskatzekotan-*

---

<sup>1</sup> 2010.eko EITBren gizarte-erantzukizuna dokumentua (Dosierra\_Irakurketak).  
<[http://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2011/05/31/486442/ege\\_memoria.pdf](http://www.eitb.eus/multimedia/documentos/2011/05/31/486442/ege_memoria.pdf)> [Kontsulta: 2017/04/28].

*grabaketan agertzen direnen anonimotasuna gordetzen bada. Hori gertatzen da, esaterako, ikerketa erreportajeak gizartean gertatzen diren zorigaitzak salatzeke erabiltzen direnean (drogak, mafiak eta pertsonen salerosketak, etab.). Erabilera hauen inguruko azalpena eta hausnarketa “Los reportajes de investigación con cámara oculta. Estudio periodístico y jurídico” (Dykinson, 2015) liburuan eskaintzen dira. Deontologia ikuspuntutik onar litekeen arren, irudi pertsonalaren kontra joateagatik gaur arte Espainian Auzitegi Konstituzionalak kamera ezkutua erabiltzea ez du baimendu, nahiz eta kazetaritza-helburuek eta gizartearen ongiak merezi izan. Hala esan zuen, behintzat, 2012ko urtarrilean zabaldutako sententzia batean. Ariketaren galderari erantzuna ezezkoa da, beraz. Gizabanakoen intimitatea, ohorea eta irudi pertsonala gordetzeko eskubideak ezin dira inola ere urratu, kamera ezkutuarekin lortutako informazioa interes publikorako edo delitu goria salatzeke baliagarria izan arren. Lege aldetik nahiko argi dago, nahiz eta deontologikoki gai polemikoa dela dirudien. Egia da kazetariak interes publikoa duten gaiak gizartearen eskuetan jarri behar dituztela, baina hori lortzeko erabilitako baliabideek kode deontologikoen agintzen dutenarekin bat etorri behar dute. Kode deontologikoen kazetaritzaren funtzio soziala nabarmentzen dute (injustiziak salatzea, egia zabaltzea, etab.) eta, aldi berean, informazioa lortzeko baliabide zilegiak erabiltzearen beharra azpimarratzen dute. FAPEn ustez, helburua zilegia bada, orduan baliabideak ere zilegiak izango dira, nahiz eta kodeetan beste interpretazioa agertu.*

## 5. Ariketa

Kazetaritza lanbidearen printzipioen urraketa (I): gezurra eta ez-gertaerak, *fast-true*, manipulazio kontzientea, etab.

[\* 3. Gaia]

---

Interpretatu eta komentatu hurrengo irudiak, arrazoituz eta argudiatuz. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan. Kontuan izan kode deontologikoetan esaten dena eta erabili zure azalpenetan. Ezagutzen baduzu antzeko ereduren bat azaldu.

### 1. 'Fast true'? (Adierazpen honen azalpena 3. Gaian agertzen da)

*Azkarregi ematen diren "egiak" arazotsuak izaten dira. Jazoera bat azkarregi lan egiteak informazioa behar den bezala ez egiaztatzea dakar berekin, besteak beste. Ondo kontrastatuta egon arren, beste arriskuak ere egon daitezke: informazioak zehaztasun falta izatea, informazioaren egitura teknikoa txarto egotea, idazketak akatsak izatea, etab. Hedabideek ia akats guztiak "egia azkarregi" honi leporatzen diote. Hala ere, kontuan hartuta hedabideek ildo ideologiko baten baitan jokatzeko dutela, azkarregi lan egiteagatik akats bezala agertzen direnak ez dira hainbatetan horrenbeste. Lehenengo irudian ikusten denez, El Mundo egunkariak Spanair enpresari lotutako istripua beste arazo batekin erlazionatzen du, enpresa horren krisiarekin. Istripua aprobetxatuz, egunkariak krisia goraiatzen du, krisia istripua gertatzeko arrazoia izan zela egiaztatu barik. Horrelako konexioak iritzi-testuetarako uztea aproposena izango litzateke. FAPEn kode deontologikoaren 13. artikuluan gogorarazten denez, "el compromiso con la búsqueda de la verdad llevará siempre al periodista a informar solo sobre hechos de los cuales conozca su origen" eta "(el periodista) deberá fundamentar las informaciones que difunda, lo que incluye el deber de contrastar las fuentes".*

*Denbora eskasa izateak ez du justifikatzen irudietan erakusten diren gertaerak eta antzekoak zabaldu aurretik behar diren bezala ez aztertzea. Hobe da ez zabaltzea baina lehiakortasunagatik eta merkatu arrazoiengatik, hedabideek normalean argitaratzea lehenesten dute. Hala ere, deontologiak esaten digu informazioa ez dela merkantzia izan behar, gizartearen zerbitzura egon baitago. Merkatuari eta espektakulari lotutako baloreak kazetaritzarenak baino pisu handiagoa dutenean, 'fast-true' oso erreminta baliagarria izaten da. Bereziki, mingarriak diren jazoeretan kazetariak fungabeko sartzea ekidin behar dute, sentimenduei buruzko ez beharreko espekulazioak ekidituz. Honi lotuta esan beharra dago fast-true-ren ondorioak oso kaltegarriak direla errugabetasun-presuntzioa jokoan dagoenean. Izan ere, komunikabideak epaiketa paraleloak egitera ohituta daude.*

### 2. Irudiekin jolasten...

*ABC egunkariko azalean agertzen den ereduak erakusten duenez, irudiak testuarekin bat egiteko eta irakurleengan iritzi edo ikuspuntu bat sortzeko manipulatu daitezke. ABC egunkariaren azalean agertzen den gizona hiltzailatzat jotzen da morboa edo sentsazionalismoa lehenetsiz, egiazko informazioa baino. Bigarren azalean erakusten denez, egunkariak errektifikatu bazuen ere, mina dagoeneko eginda zegoen. Kontuan hartuta hedabideak eta hitzak batzuetan armak bezala erabil ditzaketela, kazetariak eta komunikazio-enpresa buruak adi egon behar dira horrelako trataera axolagabeak ekiditeko, are gehiago baieztatuta dagoenean gerta daitezkeela, ikusi dugunez.*

*Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioaren Kodean 5. Artikuluan ageri den bezala, "el periodista debe asumir el principio de que toda persona es inocente mientras no se demuestre lo contrario y evitar al máximo las posibles consecuencias dañosas derivadas del cumplimiento de sus deberes informativos. Tales criterios son especialmente exigibles cuando la información verse sobre temas sometidos al conocimiento de los Tribunales de Justicia".*

*Epailearen erabakia ezagutu zuenean ABC-k errektifikazioa argitaratu bazuen ere, albistearen tamaina eta errektifikazioarena ez dira batere parekoak. Errektifikazioari dagokionez, FAPEn 13. artikuluan (batealean) hurrengo azaltzen da: "Advertida la difusión de material falso, engañoso o deformado, estará obligado a corregir el error sufrido con toda rapidez y con el mismo despliegue (...) empleado para su difusión. Asimismo difundirá a través de su medio una disculpa cuando así proceda". Horrelakoak gertatzen direnean, hedabideak barkamena eskatzea bere profesionaltasuna eta konpromiso etikoaren seinalea izan daiteke.*

*El Mundo egunkarian argitaratutako ereduak ere antzeko manipulazio aukera agerian jartzen dute. Bietan ematen du mezu ezkutatu bat dagoela. Lehenengo irudiak Mariano Rajoy lehendakariak Europa Batasuneko bi buruzagi boteretsuekin erakusten du. Bigarren irudiak Zapatero lehendakari ohiak gazte batekin erakusten digu. Hainbatentzat gaztearen janzkera pertsona problematikoaren seinalea izan liteke, punk itxuraduna baita. Gauzak horrela, egunkariak Rajoyren irudia indartu nahi du eta Zapaterorena, kontraz, kaltetu. Bigarren irudian iragarki bat erakusten da. Iragarkiak enplegua hobesteko PSOE partidu politikoaren esfortzuak nabarmentzen du. Orrialde berean, albiste batek ideia hori beheratzen du.*

*Kazetaritzako kode deontologikoetan argi esaten da titulu nagusiak eta azpitoluak jazoeren edukia zintzoki islatu behar dutela eta argazkiak errealtatearen isla zehatza izan behar direla. Horrek esan nahi du hedabideak irudiak edizio programa baten bitartez ezin dituela manipulatu, ezta ere bere esanahia hutsaldu edo indargabetu ondoko testu baten bitartez.*

### **3. Zein da albistea?**

*Eredu bitxi honetan ikus daiteke nola albistearen titulu nagusia albistearen barruan dagoen zatikatzearekin bat ez datorrela. Kazetaritzako kode deontologikoetan argi esaten da titulu nagusiak eta azpitoluak jazoeren edukia zintzoki islatu behar dutela. Aurreko eredu batean ikusi dugunez, hedabideek akatsak diruditenak aprobetxatzen dute mezu ezkutatuak edo interpretazio ezberdinak helarazteko. Horrelako akatsak nahita edo nahi gabe egiteak produktuaren kalitatea eta balioa gutxiesten du eta kalitatea, kazetaritzan, arau etikoen errespetuaren eskutik doa.*

### **4. Irudi gogorak**

*Zer esanik ez, gure mundua irudiez ase dago eta irudiak grabatzeko gailuak (kamera digitalak, telefono mugikorak, tabletak, dron-ak) ia pertsona guztien esku daude. Gero eta errazagoa omen da besteen irudiak hartzea eta intimitatea urratzea eta, sareak eskaintzen duen askatasunari esker, grabatutakoa azkar eta erraz zabaltzea. Kazetaritza profesionalaren arloan mugak daude. Horietatik batzuk informazio-eskubidearen berezko mugak dira eta, beste batzuk, kazetariak beren buruari inposatzen diotenak dira.*

*Irudi batek hamaika hitz baino gehiago balio du, baina eskubidearen informazioak mugak ditu eta arau orokor moduan, irudien gordintasuna saihestu behar da. Baina, noraino heldu behar da? Kamera batek hartzen dituen izugarrikeriek kontzientziak eragiteko gaitasuna dute edozein egoeratan? Helburu horrekin erabiltzen dira kasu gehienetan edo, kontraz, salmentak laguntzeko eta mozkin ekonomiko handiagoak eskuratzeko? Istripu, atentatu edota hondamendi bat erakusteko eta audientziak tragediaren neurriaz jabetzeko lehen planoko irudiak ez dira beharrezkoak. Izan ere, hainbatetan, nahiz*

*eta informazio-balioa aitzakiatzat hartu, morboa baino ez da lortzen eta, hori dela eta, askotan irudi horiek erabiltzeak kode deontologikoak urratzen ditu. Horrelako irudiek kontsumitzaileen eskaerari erantzuten dutela esanez, zenbat eta gogorragoak, orduan eta erakargarriagoak dira hainbat hedabiderentzako eta, ondorioz, audientziaren zati batentzat. Oso hedatuta dago uste hori. Hedabide gehienek pentsatzen dute produktu bat erakargarria izan dadin, ikusgarritasuna, gatazka edota morboak beharrezkoak direla. Zer esanik ez, zenbait kasutan horrelako usteek gertaerak berak lausotzeko baino ez dute balio, garrantzirik ez duen zerbaitean interesa pizten baitute.*

*Edonola ere, zaurituen edo hildakoen duintasuna eta, are gehiago, bere intimitatearen eskubidea informazioaren eskubidearen aurrean kokatzen da. Neurri handi batean hausnarketa horrek eztabaida gogogabetzen du.*

*Esaterako, El Semanal astekariko azalean agertutako irudia Ciudad Juarez inguruko erreportajea aurkezteko erabiltzen da eta honetan hilda eta biluzik dagoen emakume bat autopsia mahaiaren erakusten da. Gaiaren garrantzia eta gogortasuna helarazteko irudia aproposa izan daitekeen arren, biktimaren duintasunari ez zaio jaramon handirik egiten. Hori guztiengandik, ariketan erakusten diren irudiak eta antzekoak direnek biolentziaren hutsaltzen lagun dezakete. Kode deontologikoetan honi buruzko aipamenak agertzen dira. Esaterako, Europako Kontseiluaren 35. artikuluan esaten dena: "Teniendo en cuenta la especial influencia de los medios de comunicación (...) sobre la sensibilidad de niños y jóvenes, conviene evitar la difusión de emisiones, mensajes o imágenes que exalten la violencia (...)".*

*El País egunkariaren Estilo Liburuak honela dio: "Las fotografías con imágenes desagradables sólo se publicarán cuando añadan información".*

*Berriaren Estilo Liburuak horrela azaltzen du: "Argazkiak informatzeko elementuak dira. (...) Inoren intimitatea eta ohorearentzat kaltegarria gerta daitekeen irudirik ez da argitaratuko"*

*Britainia Handiko kazetarien jokabide-kodeko 6. puntuan esaten duenez: "Un periodista no debe realizar nada que implique la intromisión en la angustia o dolor privados".*

*Kataluniako kazetarien Elkarteak dioenez: "Respetar el derecho de las personas a su propia intimidad e imagen, especialmente en casos o acontecimientos que generen situaciones de aflicción o dolor, evitando la intromisión gratuita y las especulaciones innecesarias sobre sus sentimientos y circunstancias, especialmente cuando las personas afectadas lo expliciten".*

*Azkenik, FAPEn (Federación de Asociaciones de la Prensa de España) esaten duenez: "En el tratamiento informativo de los asuntos en que medien elementos de dolor o aflicción en las personas afectadas, el periodista evitará la intromisión gratuita y las especulaciones innecesarias sobre los sentimientos y circunstancias".*

*Ereduetan ikusten ditugun erduek eta antzekoek karga emozional handia bereganatzen dute eta sentsazionalismoa eragileak izan litezke. Hori ekiditeko, irudi horiek zabaltzearen abantailak eta helburuak zeintzuk diren aurrez aurretik ondo baloratu behar da eta, azken beltzean, intimitatearen eskubidea edo berezko irudia gordetzeko eskubidea urratzen duten ala ez aztertu behar da.*



## 6. Ariketa

Kazetaritza lanbidearen printzipioen urraketa (II):  
gezurrezko gertaerak eta informazioaren tratamendua

[\* 3. Gaia]

---

### *Lehenengo artikulua*

#### **1. Komunikabideen gaurkotasunaren gai nagusiekiko ekarpena. Informazioa ikuskizuna bihurtu. Marta del Castillo-ren kasua, Madeleine-ren kasua, Mariluz-en kasua, Seseña-ren kasua...**

*Komunikabideek laugarren boterea izanik, beraien ekarpenak ondorio handiak dituzte. Askotan epaileen papera hartzen dute eta gai nagusiekin epaiketa paralelo bat egiten dute. Testuan agertzen den kasua adibide argia dugu.*

*Urte asko pasa diren arren, Raval-eko pederastia sarearen kasua (1997. urtekoa) paradigmaticoa da oraindik, honek geroago gertatu diren antzeko kasu oso mediatikoetan hedabideek nola jokatu duten ulertzeko balioa duelako. El Raval-eko kasuan hedabideek akats ugari egin zituzten, existitu ere egin ez zen kasu baten oinarritutako "gertaera" asmatu barne. Egilearen hitzak erabilia, "(el periodismo) su mayor gloria es recoger con paciencia pequeños relatos de lo verdadero y su obligación inexorable es decidir antes de medianoche si algo ocurrió o no". Izan ere, gaurkotasunarekiko mendekotasuna eta lan-errutinak kazetaritzaren etikaren etsairik nagusienetarikoa dira. Are gehiago, presak eta gaurkotasunaren mirabetzak akats etiko larrienak eragin ohi dituzte.*

*Testuaren idazlearentzat zenbait baldintza behar izaten dira aurkezten duen moduko ez den egitate bat "gertaera" bilakatzeko, alegia, albistea bilakatzeko. Besteak beste, autoreak aipatzen du gezurraren eraikuntza "merkea" izan behar duela (denboran zein dirutan garestiak direnean ez ohi dira "gertaera" gauzatzen). Batez ere, publikoaren edo hartzaileen partetik jokoan parte hartzeko gogoia eman behar da. Autorearen esanetan, badago kazetaritzaren funtzionamenduarekin lotutako funtsezko beste ezaugarri bat: gaurkotasuna.*

#### **2. Komunikabideek errealitatea eraikitzen dutela esaten du testuak. Autoreak azaltzen digun kasuan ez dago zalantzarik, jazoera mediatiko hori inoiz gertatu baitzen errealitatean. Baina gertaerak errealitatean gertatzen direnean eta komunikabideek kontatzen dizkigutenean, ez daude ba errealitatea eraikitzen ere bai?**

*Testuak nolatan hedabideek posiblea duten zerotik "gertaera" bat sortzea azaltzen du. Jokaera hori ez da berria, baina El Raval-eko kasuan ageri-agerian geratu zen. 'Gertakari' bat benetan gertatu ez izana eta hedabideek asmatzea errealitatea eraikitzea da. Era berean, gertakari bat benetan gertatzen denean hedabideek ezkututzea edo isiltzea errealitatea eraikitzea da ere bai (izan ere, gure munduan, hedabideetan agertzen ez dena ez da existitzen). Autoreak azpimarratzen duenez, horrelako jokabideak "establishment" edo sistema antolatu baten seinale dira. Kazetarien*

*ikuspuntuak eta haren iturriek kontakizuna beti baldintzatzen dute. Zentzu honetan testuak komunikabideek errealitatea (edo errealitate bat, behintzat) eraikitzen dutela saten du.*

*Testuak azaltzen duenez, gezurra publikoaren edo hartzaillearen erantzun egokiagatik gauzatzen da. Nahiz eta mezu faltsuak izan, hartzailleei sinesteko erremedioa besterik ez zaie geratzen; zergatik pentsatuko al dute ba gezurra esaten ari zaiela? Autorearen ustez, "establishment" hori, halaber, iritzi publikoa, oso garrantzitsua da gertaeraren oihartzun mediatikoa eragiteko. Puntu honetan, Furio Colomboren hitzak gogoratzen ditu autoreak: "lo que la gente pide". Autoreak ideia hori gai morbosoeekin erlazionatzen du. Laburbilduz, testuan pederastia kasu bat jartzen da adibide moduan. Hedabide guztiek lehenak izan nahi dute. Horrek zurrumurru batean oinarritutako albiste bat argitaratzea ez du justifikatzen, gizartean horrek duen eragina izugarria izan arren edo audientzia lortzeko oso baliouduna izan arren.*

## **Bigarren artikulua**

### **1. Zein motatako kazetaritza kritikatzeko dituzte autoreak?**

*Orrialde txuriaren beldur edozein gauza idazteko kapazak diren kazetariak kritikatzeko dituzte, baita deklarazio kazetaritza eta salaketa kazetaritza ere. Era berean, ezer ziurrik jakin gabe zergatietan murgiltzen den kazetaritza eta ezohiko jazoerak egunerokotasunak bailiran tratatzen dituzten kazetaritza kritikatzeko dituzte autoreak.*

*Autoreari ez zaio ondo iruditzen kazetariak gertakizunaren zergatia azaltzea, arrazoi askok egon daitezkeelako zerbait gertatzeko eta horiek albistea lehen aldiz ematen denean ez ohi dira azaltzen. Hartzailleak gertakariaren zergatia edo zergatiak jakin nahi ditu, eta kazetariak eskaintzen dizkio, hala ez izan arren. Kazetariak berak dauzkan datuen arabera zergati bat atera dezake eta publikatu, baina hala ez bada izugarrizko kaltea egingo du. Zergatiak oso garrantzitsuak izaten dira, baina hauek analisia eta hausnarketa eskatzen dute eta hori 'fast-true' paradigmarekin elkartzina izaten da. Zentzu honetan, kazetari askok bere lana zergatietan zentratzen dute, jarrera harroputza erakutsiz.*

### **2. Internet sarea aipatzen da. Zein asmorekin? Autorearekin bat zator?**

*Autoreak kazetariaren beharrezko bitartekari lana interneten arriskuan dagoela uste du. Izan ere, internet bitartekaririk behar ez duen hedabidea da eta hutsegite etikoei buruzko epaiketak zailtzen ditu. Esaterako, internetek eskeintzen duen anonimotasuna kaltegarria izan daitezke, baldin eta anonimotasun horrek usteen edo zurrumurruren zabalkuntzari lagutzen badiu. Zentzu honetan, autorearentzat internet iragarkiak zintzilikatzeko tabloi handi batekin alderatzen du, bertan edozein gauza idatzi edo esan daitezkeelako. Hori ere kalitatezko ohiko komunikabideekin askotan gertatzen dela kontuan hartuta, interneteko alde onekin geratzeak merezi du (adierazpen askatasuna, kolektibitatea bultzatzeko interaktibotasuna, etab.). Izan ere, esaterako, internet erreminta bikaina izan daiteke klik sinple baten bitartez gizartea mugiarazteko, eta hori ezin da galdu. Autoreak kazetaritza defendatzen du, beste hedabideetan bezala interneten ere; beraz, hedabide tradizionaletan gertatzen den bezala, interneten ere kode deontologikoak begiratzea aldarrikatzen du idazleak. Hitz batez, euskarri tradizionaletan aplikatu behar diren kodeek interneten ere balioa dute, arduraz erabilia internet euskarri erabilgarria izan daitezen.*

### 3. Zeri buruz hitz egiten du autoreak “fast-true” esamoldea erabiltzen duenean?

*Azkar eraikitze eta kontzumatze “gertaera” edo “egia”, errealitatean faltsua dena. Komunikabideek gertatu denaren berri ematen dute eta mementoan gertatzen den guztiaz informatzen saiatzen dute. Baina informatzeko prozesu hori gaur egun lasterketa bat bihurtu da. Hori dela eta, abiadura eta presio handienpean lan egiten da. Lehenengo informatu egiten da eta beste guztia –kontrastatze prozedurak, kasu–geroago etorri ohi dira, bere indarra galduz. ‘Fast-true’ paradigmagatik edo gaurkoarekiko mirabetzaren ondorioz, hainbatetan ere gertaera garrantzitsuen segimendua ez da egiten.*


### 4. Komentatu ondorengo esaldia: “Cualquiera puede ser periodista y hace bien la sociedad juvenil en reclamar su puesto en las facultades de periodismo: es un trabajo brillante, cómodo, bien pagado. Lástima que, respecto al contrato social del periodista, sea además un trabajo inútil. Pero eso se ve luego, si se ve”.

*Autorearen iritziz, kazetariari errealitate eta albistearen arteko bitartekaria izatea dagoeneko ez zaio eskatzen. Kazetarien “hitzarmen soziala” alde batera utzi da; egun, ofizio arrunt bat besterik ez da eta, ondorioz, ez du ia lan sozialik betetzen. Autorearen aburuz, kitrikotasunik, bitartekotasunik eta zintzotasunik gabe “alferrrikako lana” bilakatuko da kazetaritza, baina askok ez dira konturatu kazetaritzak nola nola okerrera egin duen. Are gehiago, autoreak kazetaritzaren alde xarmagarria besterik ez dela ikusten uste du: “(...) brillante, cómodo, bien pagado”, bere hitzetan. Autoreak kazetari batek gizartearekin hartzen duen ardura eskasa eta “alferrrikako” (“inútil”) dela salatzen du. Hurrengo esaldia hori azaltzeko esanguratsua da ere bai: “Pero eso se ve luego, si se ve” (“baina hori, geroago ikusten da, ikusten bada”). Esaldi honekin, autoreak kazetarien konpromiso maila kontuan hartzen du kazetari batzuk lanbidearen hutsegiteen inguruko kontzientzia hartuko dutela eta beste batzuk ez azaltzeko.*

## 7. Filma ikuskatze

Insider (1999)

[\* 3. eta 4. Gaiak]



### 1. “60 min” produktorearen jokabidea (Lowell = Al Pacino)

- Noraino heltzeko prest dago egia zabaltzeko?
- Nola ulertzen du bere lanbidea?
- Fikziozko kazetaria? (Filma batean agertzeko bakarrik)
- Aukeratu adjektibo batzuk kazetari hau definitzeko

*Al Pacino aktoreak interpretatzen duen kazetariaren edo produktorearen papera azpimarratzen du filmak. Lowell produktorearen jokabidea adibide har liteke, kazetari sena duelako. Lowell kazetari egiazalea, arduratsua, zorrotza eta ausarta da; amaieraraino heltzeko prest dago eta interes ekonomiko edota politikoez izan dezaketen eragina berdin zaio (heroia papera, 3. Gaia).*

*Zentzu honetan, Lowell-en jokabidea tematia ere dela esan liteke. Jokabide justiziazalea ere dela esan liteke, berak gizarteari egia zabaldu nahi diolako, kontuan hartuta, berarentzat, egia zabaltzea justizia egitea dela. Bere jokabidea justiziazalea ere dela esan behar da. Lowell-ek bere lanbidea, kazetaritza, justizia eta mundu hobea bat bilatzeko erreminta bezala ulertzen du. Agian ikuspuntu erromantikoa edo errealismo gutxiakoa da, beraz, fikziozko kazetaria dela ematen du. Dena den, Lowell-en ikuspuntua kazetaritzaren funtsa edo muina oso ondo azaltzen duela kontuan hartuta, antzeko kazetariak errealitatean ere aurki daitezkeela esan genezake, nahiz eta handitasun edo intentsitate gutxiagorekin izan. Informazio-enpresak (CBS Telebista) interes politiko eta ekonomikoak egia berari baino garrantzi handiagoa eman zien. Enpresako beste kazetarien jarrera konformistagoa da. Ez dute buruek adostutakoa zalantzan jartzen eta egia erakitzeko konpromisoa askoz gutxiagoa da. Etikaren printzipioak Lowell-engan ikusten dira eta etika falta CBS enpresan, hurrengo galderan azalduko den bezala.*

### 2. CBS telebista-enpresaren jokabidea

*Enpresaren jokabideak manipulazioa eta partzialtasuna laguntzen du beraz, ikuspuntu deontologiko batetik, enpresaren jokabidea ez da batere zuzena. Enpresari tabako-enpresen iruzurra agerian uzteko aukera galtzea berdin zaio eta bere interesak defendatzea erabakitzen du. Merkatu ikuspuntu batetik, edozein enpresak bere funtzionamendua eta helburuak (etekinak lortzea) babestu behar ditu. Hala ere, informazio-enpresak ez dira besteak bezala, funtzio soziala bat betetzen dutelako eta gizarteari zerbitzu bat eskaintzen diotelako. Funtzio horren arabera, enpresen lehentasunezko helburua gizartearen ongizaterako informazioa zabaltzea izan beharko litzateke. Honekin lotuta, esan behar dago ‘60. minutu’ izeneko programarako egindako erreportajea nahiko sentsazionalista dela: kosta ahala kosta entzuleria erakartzeko pentsatuta dago. Dena den, enpresaren hierarkiak Lowell-en lana zapaltzea ahalbidetzen du. Era berean, filmean ikusten da egoerak iturria presiopean jartzen duela, nahiz eta Lowell-ek neurri bateraino zaintzen saiatu. Deontologiak esaten duenez, iturria zaindu behar da, baina filmean enpresaren jokabideak iturria kaltetzen du.*

*Beraz, informazio-enpresaren jokabidea ikusita, informazioa etekinak lortzeko produktua edo salgaia bezala*

*hartzen da. Informazioa ikuspuntu merkantilista batetik jabetu eta landu daiteke, horrek ez baitu zertan esan informazioaren zabalkuntzak ezin duela justizia edota ongizatea bilatu. Filmean gertatzen den bezala, arazoa dator komunikazio enpresak informazio eskusiboak ekarriko dizkion etekin ekonomikoak baino ez kontuan hartzearen ondorioz.*

*Informazioaren kontrola Lowellek '60. Minutu' erreportajea ekoiztean izan arren, emititzailearen kontrola CBSko buruek dute. Izan ere, zentzura ezartzeko kontrola da. Enpresaren hierarkiak nola informazio prozesuak baldintzatzen dituen ohartzeko aipaturako kontrol banaketa eredu aproposa izan daiteke. Azken batez, informazioaren erabakiak ez dituzte kazetariak hartzen, informazio-buruek baino.*

### **3. Filmean agertzen diren kazetaritza etikaren printzipioak. Azaldu**

*Filmean egiazkotasun printzipioa agerian geratzen da eta, honi lotuta, justizia printzipioa, egiazko informazioaren bidez justizia lortzea nahi baita. Hauei dagokienez, filmak hurrengo ideia deontologikoak transmititzen ditu: informazioa egiaztatu behar da; iturria fidagarria izan behar da; iturria zaindu behar da; interes publikoko informazioa kaleratu behar da. Askatasun printzipioa ere aipagarria da. CBS telebistak Lowell produktorearen bideoa ez emititzea erabakitzen duenean printzipio hori urratzen da.*

### **4. Filmean esandako esaldi aipagarrienak kazetaritza deontologiaren ikuspegitik**

- *“Ziur egon behar gara informazioa egia dela”*
- *“Konfidentziala den zerbait esaten didatenean ez dut zabaltzen”*
- *“Herri amerikarrak, bere hobe-beharrez, jakin beharreko berebiziko barne informazioa ez baduzu, eta kontatzeko beharra baduzu, nahiz eta ituna hautsi, hori aukera bat da. Eta akordioa hautsi nahi ez baduzu, ez egin deus, ez esan ezer”*
- *“Negozio-gizona ala informatzailea?”*
- *“Inoiz ez ditut iturriak bertan behera utzi”*
- *“CBS-k konfidentzialtasun-itunak ditu kazetari eta enpresaren artean, baina nik ez diet jaramonik egiten”.*

## 8. Ariketa

### Informazio-enpresa eta balio profesionalak (I)

[\* 4. Gaia]

---

**Erantzun galdera hauei. Eman zure iritzia, arrazoitu eta argudiatu. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan.**

**1. «Publikoa ez aspertzeko, gertakari morbosoa eta korapilatsuen berri eman eta bizi-tza sozial edo politikoko alderdi gatazkatuak nabarmendu behar direlako ideia oso zabalduta dago kazetaritzan». Azaldu, ereduz adierazi eta eman zure iritzia.**

*Betiko balio profesionalak mantendu arren (egiazkotasuna, objektibotasuna, giza-erantzukizuna, etab.), informazioa ekoiztean badaude beste balioak gero eta pisu handiagoa lortzen ari direnak: ikuskizuna, dramatismoa, gatazka, ikusgarritasuna, etab. Balio hauek informazio-enpresen errentagarritasun ekonomikoa kontuan hartuta bultzatuta daude (entzuleria lortzea, publizitate gehiago lortzea edota ale gehiago saltzea, esaterako), ez beste motatako errentagarritasuna edo etekina (hedabideen gizarte-zerbitzua gauzatzea, esaterako). Testuak dioenez, “merkatuaren eskakizunak” oso kaltegarriak izan daitezke, hauek gizarteak behar duen informazioa eskaini ordez, gizartea entretenitzen duen informazioak zabaltzera eramaten dutelako. Informazioa produktutzat hartuta, produktu hori ekoiztean merkatuaren eskakizunak eta premiak aintzat hartu behar dira, logikaz. Beste motatako enpresen langileekin gertatzen den bezala, badirudi oso produktiboak izateaz gain, kazetariak orduak eta buruen aginduak bete baino ez dutela egin behar. Gainera, testuak gogorarazten duenez, askotan “enpresak denbora edo baliabide nahikorik ez du eskaintzen”, eta horrek ere kazetarien lan giroa kaltetzen du.*

*Informazioaren merkantilizazioa edo merkatuaren eskakizunei kasu gehiegi egiteak zera dakar: langileak, hau da, kazetariak, presiopean lantzea (berehalakotasun premiei erantzuteko) eta historioen edo jazoeren garrantzia neurtzeko irizpide desitxuratuak erabiltzea. Zer esanik ez, irizpide editorialak jarraitzea obligazio morala izan arren, botereen beharren arabera irizpide hauek alderditasun handiegia erakus dezakete, kazetariari maniobratzeko askatasun gutxi utziz. Honi dagokionez, ez da ahaztu behar bere eginkizuna behar bezala gauzatzeko kazetariaren askatasuna edota autonomia profesionala bermatu behar dela.*

*Presiopean landuz, mundua edo gertakariak interpretatzeko kazetarien askatasuna murrizten da eta murrizketa horrek eragin zuzena du emaitzan –albistean, erreportajea, etab.–. Kontua da informazioa zerbitzu bat dela eta, ondorioz, herritarren beharrak eta gizartearen ongizate kontuan hartu behar duela. Hala ere, azken hamarkadetan ematen ari diren joerak ikusita, kazetaritzak eta hedabideek kontrako efektua lortzen ari direla ematen du: gizartea kaltetzea. Testuak kritikatzan duenez, jokaera hori ekoizpen arazo huts edo ohikeria profesionaltzat hartu ohi da. Honi dagokionez, Kazetaritza Etikaren Nazioarteko Kodeak (UNESCO, 5. artikulua) dioenez, “kazetaritzaren izaera dela eta, kazetariak erraztu egin behar du gizartearen informaziorako sarrera, hala nola hedabideetako partaidetza”. Kode berean gogorarazten denez (3. Artikulua), “kazetaritzan informazioa gizarte ondasuntzat hartu beharra dago, ez produktu hutsa balitz bezala”.*

*Idatziaren autoreak azpimarratzen duenez, hedabideek gizarteak berak eskatutakoa eskaintzen dutelakoa gizarteari on egiten zaiola pentsatzen da, nahiz eta askotan “eskatutakoa” (morboa, ikuskizuna, etab.) balio edo eragini handirik ez izan, behintzat ez ikuspuntu sozial batetik. Hori dela eta, kasu orotan*

kazetariak gizaritari on bat egitea bilatu behar izango du, berari garrantzitsua iruditzen zaiona eskainiz (esaterako, ezberdintasunak salatzea, korrupzioa salatzea, etab.), deontologiari buruzko erreferentzia sendoak mantenduz eta kodeei kasu eginez.

Azaldutakoa testutik ateratako hurrengo esaldiek ondo labur lukete: “Kazetaritzan nagusi den ikuskizunaren paradigma horrek ez du berez garrantzirik ez duten albisteak aukeratu eta nabarmentzea soilik barne hartzen; eta ez da albiste garrantzitsuei ikuskizun tratamendua ematera ere mugatzen, tratatu horrek azalekoa azpimarratzen eta funtsezkoa ezkutatzen duen arren”.

## **2. Kazetaritza politika edo ekonomia kontrolatzen duen “laugarren boterea” dela esan daiteke gaur egun? Txakur-zaindari bezala jokutzen du gaur egun kazetariak? Eta nor da txakur-zaindariaren txakur zaindaria?**

Testuak dioenez, laugarren boterearen rola galtzen ari da eta, salbuespenak salbu, kazetaritzak zaila du gaur egun botere politiko, ekonomikoen edo sozialen gehikeriak zaintzeko eta saihesten laguntzeko. Izan ere, autoreak dioenez, kazetaritza “dinamika” berezi batean sartuta dago, non iturri instituzionalizatuak ia iturri bakarrak bihurtzen ari diren. Hori “oso funtzionala da informazio enpresaren ekoizpen irizpideentzat: iturri horiek informazio gehiago ematen dute eta (...) emandako albisteak okerra izanez gero, hedabidea erantzukizunetik salbuetsita geratzen da; eta azkenik, iturri horien erabilera pribilegiatuari esker, kazetaritzak elite sozialekiko harremanak izaten ditu”. Iturrienganako mendekotasuna edo, hobe izanda, iturri boteretsuekiko harremana eta kidesun hori kazetaritzaren betiko “laugarren boterea”ren paperarekin bateragaitza dirudi. Izan ere, menpekotasun horrek kazetaritza bera ere eremu horietako beste botere bat izatera eramaten du.

Hedabideen agenda erabakitzen dutenak eta kontakizunak idazten dituenak eremu horietako botere guneak dira. Eredu edo paradigma horretan, kazetariaren autonomia profesionala askoz murriztuta dagoela esan liteke: “ekoizlekidea” izanda, kazetariak bere ikuspegia botere-jakin zerbitzura zuzendu eta mugatu behar du. Laburbilduz, kazetariak gertakarien eta erabakien arteko “bitartekariak” direlaren ikuspegia kolokan omen dago.

## **3. Zer dio autoreak kazetarien lan baldintzei buruz eta profesionalen eginkizunei buruz komunikabide-enpresan?**

Autoerak dioenez, egungo lan baldintzak eta profesionalek bete behar dituzten eginkizunak kazetaritza lanbide gisa bere zentzua galtzera eramaten ari dira, eginkizun hauek oso mekanikoak direlako eta ez dutelako sormen handirik eskatzen. Alde batetik, iturrienganako mendekotasuna dela eta, informazioa lortzeko eta historio intergarriak bilatzeko lana ia hautemaezina da. Beste aldetik, lan-hierarkiak direla eta, erabakitzeko ahalmenak gero eta murriztuagoak edo mugatuagoak daude eta kazetari askok interesa edo ilusioa galtzen dute. Hau oso garrantzitsua da, testuak dioten bezala, kazetaritza konpromiso pertsonal handia eskatzen duen lanbidea delako, eta suspergarririk ez edukitzeak, gogoetarako arrazoiak galtzera darama.

Testuan esaten denez, “informazio-enpresetako plantillen egiturak eta eginkizunen banaketak gero eta antza handiagoa dute ohiko industria edo zerbitzu pribatu batekoekin”. Honi dagokionez, UNESCOren Kode Deontologikoak esaten duenez, kazetariak “hedabideen ugazaba eta nagusiek eskatzen diotenaren aurrean ere erantzun egin behar du oro har, kontuan harturik gizarte interesak era askotakoak izan daitezkeela”.

Korporatibismo maila egoera horren erakuslea ere izango litzateke. Hierarkiak betidanik egon dira, baina gaur egun ematen du kazetarien askatasun profesionala gehiago baldintzatzen dutela. Eragin hori dela eta, profesionalen eginkizunak ere aldatuz joan dira. Nahiz eta gizartea protagonismoa berreskura-

*tzeko komunikaizo-erramintak gero eta ugariagoak izan, kazetarien jarduera ez omen du oso interesatuta protagonismo hori berreskuratzen laguntzeko. Kazetaritzaren deontologiak eta honek bultzatzen dituen erremintak (kodeak, estilo liburuak, etab.) oso garrantzitsuak izan arren, beharrezkoa da informazio-enpresen barruko egiturak, lan-ohiturak eta enpresa helburuak berreorientatzea, kazetarien lan jarduera aproposa sustatzeko eta, honenbestez, kazetariaren gabezia profesionalak edo informazioan nahi gabe egindako desitxuratzek zuzentzeko.*



## 9. Ariketa

Informazio-enpresa eta balio profesionalak (II)

[\* 4. Gaia]

---

<http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/registros/16451>

**Informazioaren Utopia** liburua (Dosierra\_Irakurketak)

**Erantzun galdera hauei. Arrazoitu eta argudiatu. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan.**

### 1. Irakurketetan agertzen diren 5-6 esaldi esanguratsu aukeratu:

- *Ekoizpen premiak direla era, hedabideak alde batera uzten ari dira kode deontologikoak eta horrela jokatzeari ez da negatiboki hartzen; batzuetan, normaltzat jotzen da.*
- *Kazetariak gutxitan hartzen du parte bere enpresako erabaki estrategikoetan.*
- *Baliabide onak badaude ere, egiten ari den kazetaritza ez da hobetu.*
- *Kodeak ez betetzearen errua ez du haien berri ez izateak, moraltasun profesionalean faltak baizik*
- *Manipulazio kontzientearen paradigma kode deontologikoen bidez borrokatu beharreko perbertsioztat har daitekeen bitartean, nahi gabeko desitxuratzea ez da desitxuratzetzat hartu; informazio enpresa izaerarekin lotzen den gauza normaltzat jotzen da.*
- *Interes ekonomikoak eta ideologikoak arrazoi informatibo eta profesionalen gainetik daude, oraindik ere”*

### 2. Informazioaren manipulazioa ekoizpen prozesuarekin, enpresaren antolamenduarekin eta kazetaritza-profesionaltasunaren balioekin lotzen da. Testuan esaten denaren arabera, arrazoitu eta azaldu zure hitzekin

*Informazio-enpresen eta hauetan lan egiten duten kazetarien jokabideek kazetaritza-profesionaltasuna zer den eta honen egoera nolakoa den galdetzera bultzatzen gaituzte. Arlo teknologikoan aurrerapauso erabakigarriak eman diren arren, kazetaritza etikaren inguruko ohiko eztabaida-gaiak berdin-berdinak jarraitzen direla ematen du. Agian hausnarketa deontologiko gehiago falta da aurrerapauso argiagoak ikusteko.*

*Hausnarketa deontologikoaren falta oso garrantzitsua da, profesionaltasun eza dakarrelako. Bere partetik profesionaltasun ezak desinformazioa/manipulazioa laguntzen du. Autoreak dioenez, munduko kazetari gehienek ohetik altxatu bezain laster iritzi publikoa engainatzeko informazioa nola manipulatu hausnartzen hasten direla pentsatzea zentzugabea izango litzateke. Izan ere, manipulazioa gehienetan oharkabean egiten da eta horregatik autoreak “manipulazio inkontziente”aren gainean berba egiten du. Oharkabe egiteak ez du esan nahi garrantzi gutxiagoa duenik. Are kontrakoa. Begi-bistakoa ez izatean, errazago ahalbidetzen eta barreiatzen da.*

*Autoreak azaltzen duenez, hainbat informazio-enpresen helburu nagusia etekinak lortzea baino ez da. Horretarako asko eta azkar ekoitzi behar da eta, ekoiztakoak erakargarria izan behar du. Zer den edo ez erakargarria beste eztabaida izango litzateke. Printzipioz, kalitatezko informazio-produktuak erakargarriak dira, nahiz eta askotan ikusten bada ere kalitatezko produktuek espero baino jarraipen gutxiagoa dutela. Kontraz, ikuskizuna eta sentsazionalismoa sostengu duten hainbatek arrakasta eta eragin handiagoa omen dute.*

*Ekoizpen premiak direla eta, komunikazio-enpresak know-how edo jokaera zehatz bat bereganatuz joan dira. Lan-sistema zehatz baten parte direnen heinean, kazetariak sistema horren akatsak bereganatzen eta sustatzen dituzte, gehienetan konturatu barik. Jokaera horrek "manipulazio inkontzienteak" eragiten du. Manipulazio mota hori informazio-enpresaren antolamenduan, barneko kultura profesionalean eta errotutako lan errutinetan oinarritzen da. Autoreak zehazten duenez, manipulazio mota horren arrazoia, beraz, informazioaren ekoizpen prozesuan zehar sortzen den desitxuratzean datza. Arrazoia prozesuaren oinarrietan (antolamenduan zein lan baldintzetan, hain zuzen) dago eta, ondorioz, kazetaritza-profesionaltasunarekin lotutako balioetan, hasieran esan bezala. Hau guztia ohartzeko hausnarketa eta autokritika beharrezkoak dira, nahiz eta hauek gehienetan ez diren arren.*

### **3. Deontologia ikuspuntutik, manipulazio inkontzienteak garrantzi gutxiagoa du? Zein da manipulazio inkontzienteak duen arrisku handiena?**

*Inkontzienteki egiten bada ere, manipulazioa gertatzen da eta honek ez du garrantzi gutxiagoa. Dena den, autoreak manipulazio inkontzientea saihestezina den zerbait bezala ulertzen du, oso errotuta egoteagatik eta, esan bezala, kazetaritza-balioei lotuta egoteagatik. Autorearen hitzetik ondoriozta daitekeenez, okerrena, beraz, manipulazio inkontzientea gauza normalizat hartzea izango litzateke, honek oinarritzko printzipio deontologikoak uko egiten dituelako. Testuak dioenez, "tradizionalki, profesionaltasuna (kazetaritza onaren balioidea), 'zerbitzu publiko' gisa hartu izan da, beste edozein ideia ginetik". Pentsaera hori, tamalez, praktikan gutxitan aplikatzen da. Informazioaren atzetiko interesek informazioaren ekoizpen prozesuan manipulazioa gauzatzen dute eta enpresa antolamendua eta kazetaritzaren errutinazko ajeak oso lagungarriak izaten dira.*

*Manipulazio inkontzientea kode deontologikoen bidez borrokatu behar den akatsa da eta nahi gabeko desitxuratzearekin gauza bera lortu behar da. Manipulazio inkontzienteak duen arrisku handiena, beraz, deontologia ikuspegitik kontzienteak baino garrantzi gutxiago duela pentsatzea eta honen arabera jokatzeko izango litzateke. Uste horrek hedabideen boterea sustatzen baino ez du egiten. Kazetari bakar batek zaila du manipulatzeko. Izan ere, esan bezala, manipulazioa ekoizpen prozesu zehatz eta ondo antolatuari lotzen da. Ekoizpen prozesu horretan profesional ezberdinak hartzen dute parte, zuzendariak, editoreak eta kazetariak, besteak beste. Testuak dioenez, "ideologia profesionala hierarkikoki sortzen da, goitik beherako ordenan; kanpo botere sozialetatik eta enpresako jabe edo zuzendaritzatik, informazio erredakziora".*

### **4. Kazetarien autonomia profesionala baldintzatuta dagoela uste duzu? Zergatik? Eta autonomia pertsonala?**

*Beste edozein lanean bezala, kazetariak nagusiak ditu bere ginetik. Horrek kazetariaren autonomia profesionala baldintzatzen du. Kazetaritzan profesionaltasuna lortzen da herritarrei zerbitzu publiko bat eskaintzen zaienean eta, orokorrean, kode deontologikoak errespetatzen direnean. Dena den, eguneroko errutinak, lan-baldintzak eta enpresaren produkzio-eskaerak ke gortina bezalakoak dira kazetarien begientzako. Gauzak horrela, batzuetan autonomia profesionala baldintzatuta dagoela ikustea zaila da.*

*Autonomia pertsonala edo gizabanako askatasuna, kontraz, ez du zertan baldintzatuta egon. Interaktibotasuna bultzatzen duten sareko plataformei esker, kazetariak autonomia profesionala enpresatik at erraz eraman daiteke. Esaterako, lanetik at informazioa eta gaurkotasunaren inguruko iruzkinak zabaltzeko, edota iturriekin kontaktatzeko kazetari batek Twitter microblogging plataforman profil bat izan dezake. Hala ere, horrelako bikoiztasunak enpresei ez ohi zaizkie gustatzen eta nolabaiteko kontrola ezartzen diote kazetariari kasu hauetan ere bai. Neurri bateraino, lanbidea dela eta kazetariaren autonomia pertsonala ere murriztuta dagoela pentsa liteke.*

## **5. Testuak aipatzen dituen kazetaritza sozialagorako proposamenak azertu. kode deontologikoetan agertzen dira? Beste batzuk bururatzen zaizkizun?**

*Testuan gomendatzen da hiritarrak protagonista bihurtzea eta hori, nahiz eta kode gutxitan agertu, praktikan gero eta gehiago ematen da. Gaur egun hiritarrei ahotsa ematea interakzioa sustatzen duten hedabideei edo plataformei esker (sare sozialak, iruzkinak, txioak, etab.) gero eta errazagoa dela ematen du. Hala ere, kontuan hartu behar da plataforma hauek guztiak ez direla adierazpen askatasuna bultzatzean bezain baliagarriak. Izan ere, erreferentziazko ziberkomunikabide iruzkinak eta eztabaida foroak moderatuak izaten dira eta moderatzaileak pantailan zer erakutsiko den eta zer ez aukera dezake. Nahiz eta ziberhedabideek iruzkinak atera ez botatzeko gutxiengo errespetu arauak baino ez eskatu, hainbatek moderazio zorrotzagoa eramaten dute praktikara. Hainbat ziberhedabideetan, zentzura dela eta parte-hartzaileen kexak ere ikus daitezke iruzkinen artean.*

*Informazio objektiboena eta garbiena eskaintzea profesionaltasuna bultzatzeko eta kazetaritzaren irudia hobetzeko nahikoa izan behar litzateke. Filmetan agertzen den kazetari heroiaeren papera betetzea ia ezinezkoa izan arren (7. ariketa), kazetariak behintzat kode deontologikoek gomendatzen dituzten oinarritzko arau moralak betetzen saiatu behar izango lukete. Bere autonomia profesionala mugatuta dagoela uste badu, beste bideak erabili beharko lituzke bere eginkizuna edo erantzukizuna aurrea eramateko ahal izateko. Adibidez, interneteko baliabideak erabiliz. Sareko baliabideak erabiltzea ez ezik, kazetaritza sozialagoa bultzatzeko beste ekintzak ere gauzatu litezke. Esaterako, iturri ofizialak kontuan izaten jarraitu arren, beste motatako iturrien presentzia handitzea komenigarria izango litzateke. Honi dagokionez, kontuan hartu behar da hiritarren ahotsak pluraltasuna laguntzen dutela. Era berean, komenigarria izango litzateke hedabideen kontzentrazioaren oso zain egotea. Komunikabide guztiek, txikiak zein handiek, berezko ildo editoriala izatean, ahots guztiak maila edo intentsitate berarekin entzuten direla ziurtatu behar da.*

## 10. Ariketa

Komunikazioko profesionalentzako gutun irekia: autonomia profesionala

[\* 5. Gaia]

---

**Erantzun galdera hauei. Arrazoitu eta argudiatu. Ez izan murrizta ideietan eta hitzetan.**

### 1. Nola definitzen ditu testuak komunikazioko profesionalak?

*Testuak kazetaritza profesionalaren jarduna zein den eta zein izan beharko litzatekeen zehazten du. Testuak esaten dioenez, komunikabideek hiritarren oinarrizko erreferenteak izan beharko lukete gaurkotasunezko gaiei buruzko interesa zehazteko orduan, gaien inguruko iritzia eratzeko orduan eta gizarte-balioak igortzeko orduan. Testuan kazetariaren gizarte-erantzukizuna gailentzen da eta, beraz, kazetaritza lanbideari garrantzi itzela ematen zaio. Izan ere, lanbide hori gizartearen kohesioa eta garapena bultzatzeko tresna garrantzitsuenetarikoa da.*

*Kazetariak komunikazio sistema osatzen dute eta, ondorioz, testuak sistema honen garrantziaz eta kazetariaren autonomiaz hausnartzen du. Komunikabideek beste komunikazio-eredua sortzeko giltza dute, baina horretarako hausnartu behar da, hots, kazetariak bere autonomiaz eta eguneroko erantzukizunaz ohartzeko eta komunikazio-enpresek bere zerbitzu eginkuzunaz ohartzeko hausnarketa behar da.*

*Idatziak hausnarketa hori argi eta garbi bultzatu nahi du. Kazetariaren eragile izaera berreskuratzea posiblea delakoan, testuak kazetariak duten erantzukizunari erreparatzen lagundu nahi du. Izan ere, testuak dioenez, kazetariak bere eguneroko jardueran dute aldaketarako giltza: "(...) oso kontuan hartu behar dugu kazetariok munduaz idatzi eta historia azaltzen dugula. 'Informatzaile' moduan garatzen dugun lana ez da aseptikoa: iritzia sortzen dugu" (...) "Kazetaritza oso iraultzailea izan daiteke, hizpide dituen egitateen benetako esanahia, mamia, inplikazioak eta ondorioak igortzen dituenen".*

*Gauzak horrela, testuak kritikatu du azaleko informazioa eta teknologia berrien aroan gizartea gero eta desinformatuagoa egotea. Testuak dioenez, desinformazioa eragiteko modu asko badaude ere, berehalakotasuna eta historioetan sakontzeko interesa gutxi egotea begi-bistakoenak izango lirateke. Izan ere, testuak gogoraraten digunez, ikustea eta entzutea ez da nahikoa eta jazoerak beren benetako dimentsioan ulertu eta aztertu behar dira behar bezala ulertarazteko. Hori lortzeko giltza konprometitutako narratiba eta kazetaritzako azterketa kritikoa izango lirateke.*

*Hala ere, komunikabideak gaur egun ez dira oso konpletasunazaleak, denbora faltagatik edota interesa faltagatik. Izan ere, irakurgaiak eguneroko lan-errutinak, antolaketa profesionala eta ekoizpen prozesuek "manipulazio inkonstzientea" (2. eta 9. ariketak) bultzatzea onartzen du, baina aldi berean gogorazten du horrek ez du zertan baldintzatu profesionalen hausnarketa etikoa: "Jakin badakigu ekoizpen ohitura mediatikoetan txertatutako osagai ugari daudela, komunikabideetan garatutako lan profesionala zailtzen dutela eta komunikatzaileen lan sortzailea zein ekimen pertsonala baldintzatzen dituztela".*

*Benetako informazioa publikoa gogaitu besterik ez duela egiten ematen du eta arreta eta entzuleria mantentzeko, komunikabideek sarritan espektakulu eta dramatismo hutsetara edota irudi deigarrietara jotzen dute. Testuinguru honetan, testuak kazetaritza bokaziozko ogibide bezala ikusten duten komunikazioko profesional konprometitu gehiago behar direla aldarrikatzen du.*

## 2. Zer gomendatzen dio testuak kazetaritzari?

*Testuak gomendatzen du kazetaritza gauza edo erakunde abstraktua dela ez pentsatzea, batez ere deontologiari edo etikari buruz hitz egitean. Zehazkiago, informazio-enpresei eta kazetariei euren kazetaritza buruzko ikuspuntua berreorientatzea eta kazetaritza egunez egun haiek garatutako errealitatea dela ohartzea gomendatzen du. Testuak azpimarratzen duenez, eragin handiko errealitatea edo eraikuntza da hori eta, horrexegatik, kazetaritzako profesionalek komunikazio-prozesuan erantzukizun handia dute.*

*Irakurgaiak nabarmentzen duenez, gaurko komunikazio eremuan deontologia urraketa ugari ematen dira. Esaterako, komunikabideek gero eta albiste ugariago zabaltzen duten arren, gertaerak eta prozesuak gero eta gutxiago ulertzen dira. Hori dela eta, testuak kazetaritzari kode deontologikoak jarraitzea gomendatzen dio, bereziki giza-eskubideen ikuspegitik. Izan ere, testuak jendeartean kontzientziatzea aldatzea iradokitzen du, batik bat gai sozialen inguruan (emakumeenganako bortizkeria, inmigrazioa, korrupzio politikoa, bulling-a, pobrezia eta edozein motatako ezberdintasunak, etab.).*

*Idatziak dionez, "albiste bera aurkezteko, errealitate bera azaltzeko aukerak ugariak dira. Egitate berberak nola azaltzen ditugun kontuan hartuta, gatazka hondagarria prebenitu dezakegu eta gatazkako alderdien arteko zubiak ezarri ditzakegu edo tentsioak areagotu ditzakegu; gizarte-polarizazioa sustatu dezakezu edo elkarrizketarako giroa eta eremua bultzatu ditzakegu; talde bat estigmatizatu dezakegu edo gizarteratzeko irtenbideak proposatu ditzakegu; bidegabekeria eta desberdintasuna betikotu ditzakegu edo errotik desagerrarazi ditzakegu".*

*Kazetariak hiritarrak sentsibilizatzeko duten gaitasuna ere nabarmentzen du testuak. Kontuan hartuta gaitasun hori gizartean ematen diren zuzengabekeriak salatzeke eta ohartarazteke oso baliagarria izan daitekeela, testuak botere ekonomiko eta politikoen nagusikeriei buruz kontzientzia hartzea ere gomendatzen du.*

*Era berean, testuak gaur egun komunikazio alorrean dauden abantailak aprobetxatzea eta, aldi berean, desabantailak ohartzea eta saihestea gomendatzen du. Horretarako internet eskaintzen duen adierazpen askatasuna, elkareragina eta berehalakotasuna oso onuragarriak izan daitezkeela kontuan hartuta, testuak gomendatzen du sareko erremintak behar diren bezala erabiltzea, internetek duen hutsunik edota okerdurak (zurrumuruak erraz zabaltzeko aukerak, anonimotasuna, etab.) kontrolatuz eta emendatuz. Bereziki, teknologiak eskeintzen dituen benetako elkareragina sustatzeko aukerak aprobetxatzea gomendatzen da.*

*Bestalde, irudiaren erresuman, irakurgaiak ikus-entzule kopuruagatiko obsesioa ez izateko argibideak ematen ditu. Komunikabideek errentagarritasun edo etekin ekonomikoa izan dezakete, baina baita beste motatakoa etekina ere, eta testuak hori kontuan hartzea gogotsu eskatzen du: "Kazetaritza gizarte borrokarako arma izan daiteke eta, ez, merkatu askearen logika fundamentalistan txertatutako beste produktu bat".*

*Hitz batean, testuak kazetaritzaren benetako espiritua zaintzera eta mantentzera deitzen du, autoreak kazetaritzak benetan gizarteari zerbitzu bat eskaintzea nahi duelako. Egiatzko eta plurala den informazioa zabaltzean, herritarren ahotsa eta partaidetza benetan bultzatzean, arazo eta ezberdintasun sozialak azalaraztean, botere ekonomiko eta politikoen gehikeriak salatzean, etab. zerbitzu hori bermatzen da.*

## 11. Ariketa

Kazetaritzaren autorregulazioa: kasu praktiko baten azterketa etikoa

[\* 6. Gaia]

### Protagonisten izen-abizenak, informazio-eskubidea eta intimitatearen eskubidea

*Kasu praktikoa aztertzeko El País-eko Irakurlearen Defendatzailea atalera jo da.*

*Albistea El País.com ziberhedabidean 2016ko apirilaren 9an argitaratu zen. Albistea hurrengo weborrialdean eskuragai dago:*

[http://politica.elpais.com/politica/2016/04/08/actualidad/1460138344\\_686283.html](http://politica.elpais.com/politica/2016/04/08/actualidad/1460138344_686283.html)



The screenshot shows a news article from El País. The headline is "Un vigilante de seguridad mata a otro y se suicida en un atunero español". The sub-headline reads: "Los dos guardias de Seguribética se enzarzaron en una discusión en la que uno disparó contra el otro y después se pegó un tiro". The article is dated 09/04/2016. There are two images: one of a fishing boat (Txori Gorrri) and another of a family. A sidebar advertisement for Nectar is also visible.

*Kasu hau deontologiaren ikuspuntutik aztertzeko hurrengo pausoak eman dira:*

1. Eztabaida deontologikoa sortzen duen informazioaren inguruan datu guztiak jaso
2. Albistearen testuingurua zehaztu
3. Urra litezkeen deontologia arauak identifikatu
4. Kasua aztertu zuzenbidezko eta deontologiazko arauak baliatuz

*Albisteak Seychelle uharteetan arrantza egiten zegoen Espainiako atun-itsasontzi batean gertatutako bi segurtasun-guarden hilketak jakinarazten du. Albistearen arabera, itsasontzian bi segurtasun-guarda lan egiten zeunden eta horietako batek bestea hil zuen, geroago bere burua hil eginez. Itsasontzian zeunden lekukoek zehaztasunak eskaintzen dituzte eta albistearen iturri nagusiak dira. Albisteak ez ditu kontuan hartzen gertaeraren arrazoiak eta trataera ez da batere sentsazionalista.*

*“Según fuentes de las fuerzas y cuerpos de seguridad del Estado, una discusión entre ambos desencadenó un tiroteo en el que uno de los guardias, Juan José Vera Carrillo, disparó contra su compañero, Juan Manuel Marchante Martínez, y después se suicidó”*

*Union Sindical Obrera izeneko erakundearen Idazkari Nagusiak El País egunkariaren Irakurlearen Defendatzaileari jakinarazi zioenez, ez omen zen oso etikoa bi protagonisten datuak eskaintzea, hala eginez hauen intimitatearen eskubidea urratzen baitzen. Idazkari honen aburuz, albisteak izen-abizenak ez zuen zertan jakinarazi, kontuan hartuta hori egiteak sentsibilitate handirik ez zuela erakusten.*

*Gertatutakoa ikusita, eztabaidaren mamia: biktimen duintasuna eta intimitatearen eskubidea urratu zen Izen-abizenak emateagatik?*

*Kode deontologiko eta Estilo Liburu guztiek zuzenbidezko arauekin bat eginez protagonisten intimitatea eta ohore eskubidea errespetatu behar dela gogorarazten dute. Hori ez dago eztabaidatzerik. Izen bat emateagatik pertsona baten intimitatea edo izen ona kaltetua izan daitekeela bai da, oster, eztabaidagarriagoa.*

*El País-eko Irakurlearen Defendatzaileak azaltzen duenez, hedabidearen informazio-interesak eta albisteetako protagonisten pribatutasun nahiak edo interesak batera ez etortzea ohikoa izaten da. Gehienetan, kazetaritzaren interesek izen ezagunak kontuan hartzen dituzte, baina kazetaritzaren ikuspuntutik edonork izan dezake interesa, baldin eta jazoera larri baten protagonista den. Defendatzaileak onartzen duenez, ospe edo publizitate txarra ez zaio inori gustatzen, baina kazetaritzaren eginbeharra jazoerez edo egitatez arduratzea da.*

*Beraren ustez, izen-abizenak erabiltzeak albisteari sinesgarritasuna eskaintzen dio. Zer esanik ez, zenbat eta datu gehiago izan, orduan eta egiazkotasun handiagoa izango du albisteak eta deontologia ikuspuntutik garrantzitsuena hori da, hain zuzen ere. Atun-itsasontzian gertatutako jazoera drama pribatutzat ezin denez hartu, intimitatearen eskubidea ezin da kasu honetan aplikatu. Bestalde, tragedia ezin zaie kazetariei baino ez leporatu.*

*Defendatzailearen azalpena ondo arrazoituta eta argudiatuta dago. Hala ere, zergatik bazterten du Defendatzaileak albistearen protagonisten inzialak erabiltzea? Izan ere, protagonistak pertsonai publikoak ez direnean, inzialek informazioaren eskubidea eta informazioaren sinesgarritasuna bermatzen dute; aldi berean, inzialak protagonisten pribotasuna edota intimitatea neurri bateraino gordetzeko aproposak izan daitezke. Aztertzen ari den kasuan, gainera, hildakoen izen ona eta pribatutasuna ez ezik, hauen familien duintasuna ere kontuan hartu behar zen.*

*El País-eko Estilo Liburuak biktimen anonimotasuna bortxaketa kasuetan eta delitu batengatik formalki akusatuta izan diren adingabeen kasuetan baino ez du gordetzen. Gauza bera esaten du Prentsa Britainiarraren Jokabide Kodeak (1994). Herrialde batzuetan (Alemania, Norvegia, etab.) ohikoa da prentsak izen bereziak ez aipatzea. Beste batzuetan, kontraz, protagonista barik istorioa ez da existitzen eta derrigorrezkoa da izenak aipatzea (esaterako, Estatu Batuetan).*

*Horrelako albisteetan inzialak nahikoak izaten dira. Hala ere, Defendatzaileak ulertzen du izen-abizenak albisteetan egotea arazotsua izan daitekeela, bereziki interneteko aroan, non albisteen erabilgarritasuna edonon eta edonoiz zeharo den. Defendatzaileak hausnartzen duenez, tratu txarrei buruzko albisteetan ere izen-abizenak debekatzea eska liteke. Oro har, izen-abizenen gai polemikoari dagokionez, Estilo Liburua birpasatu behar litzatekeela ematen du.*

*Azttertutako kasua hobeto ulertzeko beste Estilo Liburuek eta, orokorrean, Kode Deontologikoez esandakoa ere kontuan hartzea komeni da.*

*Berriaren Estilo Liburuak dioenez, albistea egiatasunez ematen saiatu behar da, aldi berean giza eskubideak errespetatuz (intimitatearen eskubidea, ohore eskubidea, etab.). EITBren jarduera jarraibideetan azaltzen denez, EITBk zorrozki zainduko du albistean azaltzen diren pertsonak ez gutxieste, haien izen ona ez kaltetzea (...) zabaltzen diren mezuen edo esateko moduen bidez.*

*FAPE (Federación de Asociaciones de la Prensa Española -Espainiako Prentsa Elkarteen Federazioa-) erakundearen kodeak (1993) esaten duenez, kazetariaren lehen eginkizuna egia bilatzea da. Egia bilatze horretan pertsonen intimitatea eta irudia errespetatuko da. Kode berean, 5. artikulua kazetariak bere informazioetan izenak ematea saihestuko duela zehatzen du, bereziki askatasun sexualaren kontrako delituen kasuetan eta, are gehiago, biktimak adingabeak direnean (6. artikulua).*

*Kataluniako Kazetarien Elkargoak (Col·legi de Periodistes de Catalunya) onartutako kodeak (1992 eta 2016ko azaroan berrikusita) bere 11. artikuluan kontuan hartzen duenez, biktimen izen-abizenak ez dira eman behar adingabeak direnean.*

*UNESCOren kazetaritzarako Nazioarteko Etikaren Kodeak hauxe dio: kazetariaren lehen egitekoa egiazko eta benetako informaziorako eskubidea zerbitzatzea da, errealitate objektiboari zintzo atxikiz, eta gertaerak testuinguru egokian berariaz kokatuz.*